

EUSKARA INSTITUTUAREN TERMINOLOGIA-LANA: ERABILTZAILEENTZAKO TERMINOLOGIA

Iñaki Ugarteburu Gastañares
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA

TERMINOLOGIA BEHARRAK UNIBERTSITATEAN

Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskara Institutuaren helburuetako bat da EHUko irakasleen prestakuntza, euskal hizkuntzari dagokionez. Horregatik, terminologia lantzeko orduan, hiru helburu bereiztea komeni da: terminologia ikerketa eta terminografia, normalizazioa, eta didaktika. Ikuspuntu didaktikoa ere kontuan hartu nahi da, terminologia-erabiltzaile izango diren unibertsitateko irakasleak gogoan hartuta. Izan ere, aski da unibertsitateko irakasle elebidunen ezaugarriei erreparatzea, espezialista horien eta terminologia-lanaren arteko harreman estuaz jabetzeko:

- a) Unibertsitateko irakasleak espezialista dira, oro har, jakintza-arlo zehatz batekoak. Irakasle eta ikertzaileak dira jakintza espezializatuaren jabe direnak, hizkuntza-erabiltzaile arruntak ez bezala; hitz gutxitan esanda, haiek dira kontzeptu berriak ezagutzen eta erabiltzen dituztenak.
- b) Unibertsitateko irakasleak ikertzaile ez ezik, irakasle ere badira. Hau da, jakintza espezializatua (kontzeptu multzoa eta kontzeptu-harreman sarea) espezialista ez direnei irakatsi behar diete, programa arautu baten bidez, espezialista ez diren horiek espezialista izatera irits daitezten. Beraz, zabalkundean erabili ohi diren estrategiak alde batera utzita, terminologia edo hiztegi espezializatua azaldu eta ulertarazi beharko diete ikasleei, kontzeptu eta terminoei dagokien zorrotasun kontzeptual eta formalak baztertu gabe.
- c) Unibertsitateko irakasleak sortzaile ez ezik, hedatzaile ere badira maiz. Zabalkundea ez da, oro har, unibertsitate-irakasleak maiteen duen lan-esparrua, besteak beste, egiturak berak ez diolako zabalkunde-lanari aitortzen ikerketari edo irakaskuntzari aitortzen dion adinako garrantzirik. Hala ere, unibertsitateko irakaslea da

zabalkundeko testuen sortzailerik egokiena, idazle espezializatu gabeak edo kazetari espezializatu gabeak ez bezala ezagutzen dituelako bere espezialitateko kontzeptuak (eta, jakina, bera da behar terminologikoak ere ongien ezagutzen dituen).

- d) Unibertsitateko irakaslea hizkuntza-erabiltzailea da: aldi berean erabiltzen du hizkuntza espezializatua eta hizkuntza arrunta. Horregatik, maiz izan daitezke interferentzia eta nahasteak eredu biak erabiltzeko orduan; izan ere, ez da beti erraz maila eta erregistro biak bereiztea.

ADIBIDE PARE BAT

Ohiko terminografia-lanari ekiteko, badirudi beharrezkoa dela hausnarketa egitea, besteak beste, terminoa zer den zehazteko eta terminoen erabilerak dituen muga, eragile eta ezaugarri nagusiak ezagutarazteko. Bi adibiderekin erakutsi nahi dugu hemen arazoa zertan den:

- a) Aski da Bilboko metroaren irudi bat erakustea, terminoen mugak zehazteak duen zailtasunaz jabetzeko (Euskara Teknikoa irakasgaiko ikasleekin erabili dugu ekintza hori, ariketa modura). Hain zuzen ere, Bilboko metroa lehengo aldiriko tren baten ibilbidea eta azpiegitura erabiliz eraiki zen, ibilbidearen zatirik handiengan, eta ibilbide horretan ari den bagoi-konboi bat ikustean zaila da, ezagutzen ez bada, konboi hori ohiko trena den edo ‘metroa’ deitu ohi dena ote den erabakitzea. Izan ere ‘(tren) metropolitano’ hitzaren forma laburtua eta lexikalizatua den ‘metro’ hitzaren definizioetako bat honako hau da: “lurpean edo agerian dabilen hiri handietako trena”. Kontzeptu berezi edo espezializatu bat adierazten du ‘metro’ hitzak (edo dena delako hitzak, beste hizkuntza batzuetan). Trenbideen jakintza-arlo teknikoaren hiztegi espezializatuaren hitzetako bat dugu ‘metro’, tren mota jakin bat adierazten duena, nahiz eta gero hitz hori hizkuntza arruntera iragan den, zientzia aplikatuko, teknikako eta kontsumoko hitzekin maiz gertatzen den bezala. Bada, askok eta askok ‘metro’ terminoaren ezaugarri berezizat (beste terminoetatik bereizten dituen ezaugarritzat) hartzen dute lurpekoa izatea: baina ikuspegi topikoa da hori, neurri batean komunikabideek sortua (ikus bestela, nolako oihartzuna duten egunkari eta aldizkarietan halako tren baten lur gaineko edo lurpeko lanen inguruko informazioek). Eta ezaugarri berezizat lurpekoa izatea har ez badaiteke, hiri nagusietan ibiltzea dugu aipa dezakegun ezaugarri berezi bakarra: baina hirien egituraren arabera (Bilbo bera eta beste hainbat herri eta herrixka lotzen ditu ‘Metro Bilbao’ trenak, hain zuzen), oso

zaila gertatuko da ‘metroa’ eta ‘aldiriko tren’ edo ‘tren arrunta’ bereiztea. Adibide horrek erakusten digu zein zail gerta daitekeen erabiltzailearentzat (terminologo ez denarentzat, alegia; baina baita terminologoarentzat ere hainbat eta hainbatetan) terminoa bera ezagutzea eta terminoak bereiztea. Eta, ondorioz, badirudi terminologiaren inguruko hausnarketari leku egitea komenigarria dela espezialisten artean.

- b) Hitz arrunta terminoa ote den erabakitzea ere ez da erraza. Hainbat ikerlanek erakutsi dute espezialistak askoz ere termino edo unitate berezi gehiago markatzen dituela, irakurle arruntak baino, testu espezializatu batean aurkitzen dituen termino edo unitate bereziak arkatzez markatu eta adierazteko eskatzen zaienean. Izan ere, espezialista da testu horretako unitate eta adierazpen esanguratsuak ongi bereizten dituen, bera delako arlo horretako kontzeptuak eta jakintza menderatzen dituen. Baina gerta daiteke, batzuetan, terminologiaren ustezko beharrak ongi ez ikustea espezialista horrek; horrela, gerta daiteke kontzeptu baten berri emateko hizkuntzak duen hitza baztertu eta besteren bat erabiltzea (hizkuntzaren ‘sena’ urratuz), ustez termino-izaerak hala eskatzen duela. Horrela, ez dirudi odola ehunetatik bihotzera eramatearen ardura duten odol-hodiak adierazteko beste hitz berezirik behar dugunik, badugulako ‘zaina’ hitza, nahiz eta testuinguru jakinen batean polisemikoa gerta daitekeen. Edo, erabiltzekotan, polisemia arazoak sor daitezkeen lan oso espezializatu eta berezietara mugatu beharko litzateke, baina ez da egoki gertatzen hitz hori hedatzea ikaskuntzako, zabalkundeko, kazetaritzako eta bestelako testu arruntetara. Halakoan ere, ezinbestekoa gertatzen da espezialistaren eta terminologo edo hizkuntzan aditu den teknikariaren arteko harremana eta lana.

TERMINOLOGIA-ARAZO NAGUSIAK

Hiru galdera nagusi egin nahi ditugu lan honetan:

- a) Terminologia non kokatu? Lexikoa hiztegieta biltzen badugu ere, badakigu ez dela hori hitzen testuinguru naturala. Era berean, terminoak ere testu espezializatueta dute kokalekua eta nekez azter daitezke inguru horretatik kanpo. Hortaz, testu errealetatik ateratako terminoei eman behar zaie lehentasuna, nahiz eta behar terminologikoari erantzuteko eta terminografia-lanetarako hitzak sortzea ere komeni den. Halakoetan, ongi aztertzea komeni da noiz erabili behar den bide patrimoniala (euskal hizkuntzaren

lexiko-sorkuntzarako ohiko baliabideak, alegia: elkarketa eta eratorpena, nagusiki), noiz joko den mailegutzara (nazioarteko erabilera ongi aztertu ondoren) eta noiz erabiliko diren beste bide batzuk.

- b) Terminologia nola txertatu? Terminologia-lana diziplina artekoa da. Hau da, ez dago terminologian aritzerik hizkuntzalari eta espezialisten elkarlanerako bidea eratu gabe. Hainbat lan aplikatutan, esate baterako, taldeak egin beharko du lan: horrela, unibertsitate-liburuak itzultzeko orduan, ezinbestekoa da lan bakoitzak hizkuntza begiralea izatea (hizkuntza-zuzentasunaz gain, testu osoaren egokitasunaz, hiztegiaren erabileraz... arduratuko dena) eta begirale teknikoa (kontzeptuen zuzentasunaz eta haiek adierazteko orduan erabili diren estrategien egokitasunaz, baita arloko terminologia espezifikoz ere arduratuko dena), eta bien artean erabakiko dituzte, itzultzailearekin batera, espezialitate arteko eta transespezialitateko hiztegi bereziaren arazoak, baita hizkuntza espezializatu eta arruntaren artean (hiztegiaren erabilerari dagokionez) sortu ohi diren arazoak ere.
- c) Terminologia nola ulertu? Esan bezala, terminologia zientzia edo ikerketa-esparrua izateaz gain, aplikazioa ere bada. Eta aplikazio hori espezialisten esku egongo da neurri batean. Horregatik, terminologian aditua izan ez arren, espezialistak oinarrizko kontzeptuak eta baliabideak ezagutzea komeni da: hitzak sortzeko bideak zein diren, hizkuntza-arauak (hizkuntza orokorrak dituen mugak, alegia), hizkuntza orokorraren estandarizazio-bideak zein diren eta zein irizpiderekin ezarri diren, datu-base terminologikoen ezaugarriak zein diren eta nola erabil daitezkeen, terminologia-dokumentazioa zer den, eta abar.

1. TERMINOLOGIAZ

1.1. TERMINOA

Maiz eztabaidatu da terminologia zientzia beregaina ote den, edo beste zientzia batzuen aplikazioa. Izan ere, oso zaila da terminologia-lana ulertzea lexikologia, hizkuntzalaritza eta beste diziplina batzuk gogoan hartu gabe. Baina ez gara hemen horretaz arituko; aitzitik, agerian utzi nahi duguna da erabiltzailearentzat teknika bat dela terminologia. Eta teknika horrek hainbat aplikazio izan ditzakeela: terminografia, hizkuntza-bitartekotza... Baina era berean aitortu behar dugu erabiltzaileak (unibertsitateko espezialistak) terminologiaren oinarrizko kontzeptuak ezagutu behar dituela, aplikazioari ekiteko.

Terminoak definitzeko esan dezakegu adierazpen-unitate bat dela (hitz bakarrez edo hainbat hitzez osatua), jakintza esparru bateko kontzeptu jakin bat era unibokoan adierazten duena. Har dezagun, beste era batera adierazteko ISO erakundearen definizioa: “*Term: designation of a defined concept in a special language by a linguistic expression*” (ISO 1087, 1988). Edo: “*Unité signifiante constituée d’un mot (terme simple) ou de plusieurs mots (terme complexe) et qui désigne une notion de façon univoque à l’intérieur d’un domaine*” (Le Grand Dictionnaire Terminologique). Bi dira definizio horietan terminoari izaera berezia ematen diotenak (hizkuntza orokorreko unitateen aldean):

- a) *in a special language* (espezialitateko hizkuntza jakin batean)
- b) *à l’intérieur d’un domaine* (jakintza-arlo batean)

Beraz, terminoen ari garenean hizkuntza espezializatu ez ari gara, baina gogoan hartzea komeni da ez dela beti erraza hizkuntza orokorraren eta espezializatuaren arteko mugak ezartzen. Bestalde, esparru jakin batekoak dira terminoak; baina ez da beti erraza esparruak bereizten eta mugatzen. Zailtasun horien ondorioz, maiz gertatzen dira auziak, batetik erabiltzaile arruntak nahiz espezialistak beretzat dituzten kontzeptuen eta haien izendapenen inguruan, eta bestetik, espezialitate arteko edo transespezialitateko hiztegia ezartzeko lanen inguruan.

Baina esandakoaz gain, berriz ere gogora ekarri behar dugu terminoak inguru jakin batean baino ez direla ageri. Terminologoak testu horietatik erauziko dituzten unitateak (soilak edo konplexuak) espezialistaren laguntzarekin; ondoren, termino horiek hiztegi edo datu-baseetan bildu ohi dituzte. Horretarako, garrantzi handia du hiztegi edo datu-base horien diseinuan arretarik handiena izateak. Alde batetik, lan terminografiko horiek norentzat egiten diren hartu behar da kontuan eta, horrekin batera, zein den lan horietan eskainiko den informazioa. Erabaki horien arabera sortuko dugu produktua: hainbat hizkuntzaren arteko baliokidetzak eskaintzen duen terminografia-lana, esparru jakin bateko hiztegia, hiztegi entziklopedikoa, glosarioa. Baina garrantzi handia du (nahiz eta erabiltzaileak maiz ez dion halakorik aitortuko) erabilitako iturrien banan-banako lekukotasunak, eta ahal den neurrian, testuinguruaren azalpen ahalik eta esplizituena. Hain zuzen ere, hiztegi eta datu-base horiek dira erabiltzaileak (espezialistak) erabiliko dituztenak bere testuak sortzeko.

Hori da, esate baterako, ‘immune’ terminoarekin gertatu ohi dena. Ingeleseko ‘immune system, immune response, immune hemolysis...’ terminoek ekarri dute ‘immune’ gaztelaniazko hiztegi espezializatuera, eta hortik sortu dira gero hainbat testutako ‘sistema immune’ eta antzekoak. Baina sistema bera ez da immunea, sistemak immunitatea bideratzen du: beraz, gaztelaniaz aise esan daiteke ‘organismo immune’ baina sistemak ‘sistema inmunitario’ behar du, eta euskaraz ‘immunitate-sistema’, inondik inora ez ‘sistema immunea’.

1.2. ALDAGARRITASUN TERMINOLOGIKOA

Nahiz eta terminologia tradizionalak kontzienteki baztertu duen aldagarritasun terminologikoa, baita aldagarritasuna ukatu ere, ez dirudi espezialitateko hizkuntzen azterketan gertaera horren azterketa saiheste daitekeenik. Hain zuzen ere, Terminologiaren Teoria Orokorrak preskriptiboa izan nahi zuen eta espezialitateko hizkuntza eredu orokorretik aparteko sistematzat hartu ondoren, sistema hori estandarizatu eta arautu nahi zuen, nazioarteko normalizazioaren, anbiguotasunik ezaren eta biunibokotasunaren bila (teoriaren aplikazio teknikoaren bila, azken finean). Baina ez dirudi lan arau-emaileak emaitza egokirik izan dezakeenik, aldeztu aurretik deskribapena egiten ez bada; eta deskribapen horretan berehala ikus daiteke, eredu orokorrean bezala, espezialitatean ere badela aldagarritasuna. Gainera, Teoria Orokorren kontsigna edo aurreiritziari jarraiki, gaur egun ere ez dirudi aldagarritasun terminologikoa egoki jasotzen denik aplikazio terminografiko askotan (ikus lan honen laugarren atalean Terminologiaren Teoria Tradizionalari, Orokorriari eta Komunikatiboari buruzko azalpena).

Aldagarritasunari hainbat erataraz erantzun zaio gerora: soziolinguistikaren ikuspegitik Kanadan 1980ko hamarkadan, sozioterminologiaren argitan Frantzia 1990ko hamarkadan eta Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren bidez Katalunian Cabréren 1997ko lanetatik aurrera. Bestalde, gero eta nabarmenago aitortzen da terminologiaren eta espezialitateko hizkuntzen inguruko beste jarduerak batzuen arteko harreman sendo eta estua. Jarduera horien artean ditugu itzulpena, hizkuntza berezituaren irakaskuntza, idazkera teknikoa, kazetaritza, eta abar.

Beraz, erabateko biunibokotasunaz baino gehiago hitz egin daiteke testuinguru jakin batean gertatzen den nozioaren eta forma linguistikoaren arteko egokitasunaz. Hain zuzen ere, forma

linguistikoaren (termino soil edo unitate konplexuaren) nahiz kontzeptuen aldagarritasuna ohiko da, zientzialarien, eskolen, tradizioaren edo hizkuntzen ezaugarri eta egituraren arabera.

Hain zuzen ere, terminografia-lanetan gero eta arreta handiagoz hartzen da kontuan aldagarritasuna: era askotako unitateak biltzen dira (soilak eta konplexuak), definizioak esparru jakin batean bilatzen du erreferentzia, eragile pragmatikoak kontuan hartzen dira (besteak beste, jakintza-arloa eta esparrua, eremu geografikoa, espezializazio-maila, konnotazio-maila, erabilera-maiztasuna, normalizazio-gradua...), testu-mota ere kontuan hartzen da (aldagarritasun bertikala) edo aldaketa diakronikoa (sinonimoen espezializazioa, esate baterako). Gainera, aldagarritasuna ez dagokio izendapenari bakarrik, aldagarritasun kontzeptuala ere gerta baitaiteke (esate baterako, izendapena hainbat erataraz defini daiteke jakintza-eremuaren arabera).

1.3. JAKINTZAREN SISTEMA

Terminoek jakintza espezializatua adierazteko balio dute, testu espezializatuen bidez. Hain zuzen ere, beste xehetasun morfosintaktikoak alde batera utzirik, esan daiteke terminoak direla (soilak eta konplexuak) espezializazio-testuetan kontzeptu berezien berri ematen dutenak eta hari kontzeptuala antolatzen dutenak. Dena den, zentzurik zabalenean hartu behar dugu hemen 'termino' hitza, badirelako termino soilak, konplexuak, unitate sintagmatikoak eta fraseologikoak, jakintza berezi horren berri ematen dutenak.

Baina jakintza-sistema konplexua da. Alde batetik sistema biribil itxia osatzen du zientzia-munduan, eta, bestetik, sistema irekia da, zientzia hedatzen den neurrian.

- a) Ikertzaileak bere ikerketa-ekoizpena —ekoizpen horretan ageriko dira kontzeptu edo nozio berriak, nola edo hala izendatu beharrekoak— autoebalatu ondoren, aldizkari espezializatu batera bidaliko du. Aldizkarian, aditu batzuek ebaluatuko dute —gehienetan linguistikoki adierazi diren kontzeptu horien zuzentasun eta egokitasuna neurtuko dute— eta ikerketa artikulu-itxurarekin argitaratuko da. Ondoren, komunitate zientifikoak ebaluatuko du eta jakintza-sisteman txertatuko da.
- b) Hortik aurrera, jakintza espezializatuaren sistemak bereganatu dituen kontzeptu horiek berriz erabiliko dira ikerketa eta azterlanetan. Baina aldi berean, jakintza berria ikasliburu eta eskuliburuetan ere jasoko da eta, horrela, ikasketa arautuaren sistemako jakintza

multzoan ere txertatuko da; hortik hedatuko da beste jakintza-arlo batzuetara edo zientzia aplikatura. Zirkuitu horretan badira, jakina, beste atal eta gune batzuk (zientziaren zabalkundea, esate baterako), eta kontzeptu berriak zirkuitu oso eta konplexu batean aurkituko ditugu baita erabiltzaile askoren eskutan ere.

1.4. ERABILTZAILEAK

Hainbat eta hainbat dira terminologiaren erabiltzaileak, edo zehatzago esateko, terminoen eta aplikazio terminografikoen erabiltzaileak: terminologoak, lexikografoak, ikertzaileak, hizkuntzalariak, espezialistak, irakasleak, ikasleak, itzultzaileak, dokumentazio-teknikariak, kazetariak, idazleak, zuzentzaileak eta hizkuntza-bitartekariak...

Jakintzari begira, hiru multzotan bana daitezke erabiltzaileak: espezialistak (irakaskuntza-programa arauzko baten bidez, espezialitate bateko jakintza eskuratu dutenak), ikasleak (jakintza hori eskuratzen ari direnak) eta beste erabiltzaileak.

Eta bezero edo erabiltzaile arrunten artean, itzultzaileak dira terminologiaren erabiltzaile nagusiak, are gehiago euskara zientifiko-teknikoaren urritasuna gogoan hartuta. Zientzia ingelesez garatzen da eta itzultzaileak dira kontzeptu eta izen berriak euskaratzen dituztenak, nahiz eta Reyk (1992) beste hainbat hizkuntzari ere aitortzen dien sortzaile-izaera:

C'est un fait évident que les procédés d'établissement des terminologies sont très variables selon le statut des langues, ce statut étant fonction des activités qui s'exercent par chacune d'elles. Il y a des langues qui ont un statut qu'on pourrait appeler de 'createur', comme c'est le cas notamment de l'anglais, l'allemand, le français, le russe ou l'espagnol, qui ont assumé historiquement une activité constitutive de terminologie.

1.5. TERMINOAK ETA TESTU-MOTAK

Oro har, testu-ekoizle eta hartzaileari begira, hiru eratako testuak dira terminologia erabili ohi dutenak:

- a) Zientifiko-teknikoak (espezialisten artekoak): termino finkatu gabeak, murriztapen estilistikorik ez, konnotazioaren ondorengo murriztapen formalik ez.

- b) Dibulgaziokoak —didaktikoak— (espezialistetatik ikasleetara): arloan finkatutako terminoak, zientifiko-teknikoetan bezalako zehaztasun kontzeptuala (handia), murriztapen estilistiko batzuk.
- c) Zabalkundekoak (informazio didaktikoa jaso nahi duten hiritarrentzakoak): terminoak eta beste baliabide diskurtsibo batzuk, murriztapen estilistikoak (sinonimoak, hiperonimoak...), konnotazioaren ondorengo murriztapen formalak.

Baina ikuspuntu murriztaile horretara mugatu gabe, espezializazio-mailaz hitz egin daiteke testuak aztertzean. Zientzia teorikoa azaltzen duten testuak dira abstrakzio-maila handienekoak eta kontsumokoak apalenekoak; tartean daude zientzia esperimentalekoak, zientzia aplikatu eta teknikakoak eta ekoizpen-prozesuetakoak. Abstrakzio-maila handienekoak dira nagusiki sinbolo artifizialez baliatzen direnak, baina beste guztiek hizkuntza orokorra erabiltzen dute elementuen erlazioetarako (sintaxia libreagoa da, zenbat eta abstrakzio-maila apalagoa) eta termino espezializatu gehiago edo gutxiago erabiltzen dute (gehiago zenbat eta testua espezializatuago).

1.6. ZIENTZIA ETA ZABALKUNDEA

Zabalkundea ez ezik, zientzia bera ere mundua ikusteko eta ulertzeko modu jakin baten emaitza da eta nekez pentsa daiteke zientzia neutroa, objektiboa eta ideologiarik gabea denik. Aitzitik, zientzia eta, zer esanik ez, zabalkundea baldintzaile sozial eta ideologikoen araberrako egoeretan sortzen eta garatzen dira, leku eta denbora jakin batzuetan, partaideen (sortzaile eta hartzaileen) araberrara sortzen dira (esperientzia, jakintza, kultura, motibazioaren araberrara) eta egitura kontzeptualaren konplexutasunaren araberrara gauzatzen dira.

Egoera horretan, interes handia dute zabalkundeko testuek. Izan ere, espezialista ez direnei zientziaren berri ematea dute helburu. Baina laburpen erraztu edo itzulpen-prozesu (kode-egokitzapen) baino gehiago esan daiteke testu hauetan birformulazio edo birkontestualizazioa gertatzen dela. Testu zientifikoa teknolektoaz baliatzen da eta testuinguru berezian gertatzen da, baina zabalkundekoa jakintza arruntaren esparruan gertatzen da eta hizkuntza orokorrak baliatzen da. Espero izatekoa da, beraz, terminologiak ere agerpen berezia izango duela testu hauetan.

1.7. UNITATE ESPEZIALIZATUAK

Testu espezializatuetoako adierazpen-unitateak era askotakoak izan daitezke. Hizkuntza-izaera dutenen artean, soilenak dira terminoak (testu horietako unitate tipikoenak). Baina unitateak soilak edo konplexuak izan daitezke: lexikoak (izena, adjektiboa, aditza...) edo zabalagoak: unitate horietako batzuk fraseologikoak dira. Bestalde, badira beste era bateko unitateak testu zientifiko-teknikoetan: sinboloak eta neurri-unitateak, izen zientifikoak (oro har, nazio artean forma estandarra dutenak), formulak, eta abar.

1.8. ESTANDARIZAZIOA

Terminologiaren Teoria Orokorraren proposamenetako bat zen nazioarteko erabilera bateratzea; horretarako, hizkera teknikoak hizkuntza orokorretik aparteko sistematzat hartzen ziren eta haien elementurik prototipikoenen, terminoen, biunibokotasuna proposatzen zen. Halako jarreran, hizkuntzen arteko harremanetan terminoen erabateko baliokidetasuna (full-match) bilatzen da. Gaur egun badira hainbat elkarte (ISO, AENOR) araugintza edo estandarizazioa bilatzen dutenak. Oro har, terminologia-elkarteek eta haiek osatzen dituzten terminologia datu-base edo datu-bankuek ere hizkuntza baten barruko normalizazioa dute helburuetako bat, baita nazioarteko terminoen baliokidetasuna ere.

Dena den, ez da beti erraz normalizazio teknikoa, hizkuntza eredu orokorra estandarizatu gabe dagoenean. Zaila dirudi gaur egun egoki erabakitzea estandarizazio teknikoak darabilen hainbat paradigma, oinarritzko estandarizazioaren irizpideak erabat finkatu gabe daudenean. Alde batetik, terminografoek ahalegin berezia egiten dute hainbat iturritako datuak jasotzen eta datu-base edo hiztegiatan ponderazio-markak ezartzen (hitz batean esanda, estandarizazio-mailak bereizten), eta bestetik, itzultzaileek ahalegina egiten dute lexikografia-kontsulten emaitzak arrazoi diskurtsibo eta pragmatikoen markora ekartzen. Hitz gutxitan esanda, batzuk nahiz besteak saiatzen dira testu espezializatuetoako aldagarritasun terminologikoari erantzuten.

1.9. TERMINOLOGIA-ARAZOAK

Ezinbestekoa da oraindik neologia-lan sistematikoa hainbat arlotan, eta lan horretarako irizpideak finkatzea, orain artekoak berrikusi eta berriak proposatuz. Besteak beste, lexiko orokorraren eta espezializatuaren arteko auziak erabakitzea komeni da: batzuetan hiztegi orokorreko elementua bera izango da espezializatuan erabiliko dena ('ingurumen'), beste

batzuetan, berriz, paradigma teknikoan estandarizazioak aginduko du ('radio / erradio'), eta abar.

Dena den, orain arte terminologia, neurri batean behintzat, neologia-lan sistematikoan oinarritu bada ere, badirudi duela urte batzuk hasitako testugintza (oinarrizko irakaskuntzakoa ez ezik, goi-mailakoa ere gaur egun) nahikoa oinarri zabala izan daitekeela gaur egun terminologia-lanerako, batez ere honako hauek kontuan hartzen baditugu:

- a) Testu-ekoizpena aski zabala da gaur egun (hainbat jakintza-arlo eta komunikazio-esparrutakoa) egiten den lanaren deskribapena egiteko, erabaki preskriptiboei ekin baino lehen).
- b) Testugintza biziki ugartu da sortzaile nahiz jasotzaileei dagokienez: unibertsitateko testugintza, oinarrizko irakaskuntzakoa, egunkari eta aldizkarietakoa, hainbat argitaletxerena...
- c) Lehen ez bezalako oreka du gaurko testugintzak komunikazio-moduari dagokionez: testu espezializatuak, zabalkundekoak, kazetaritzakoak, kontsumokoak...
- d) Gaurko aplikazio informatikoei esker, sortzen eta itzultzen dien testuak sistematikoki bildu eta azter daitezke: itzulpen-memoriak...
- e) Gaurko tresneria informatikoari esker, datu-base terminologiko eta testu-corpus zabalak ditugu eskura, erraz erabiltzeko eta lantzeko modukoak.

2. TERMINOLOGIA EUSKARA INSTITUTUAN (EHU)

Terminologiaz ari garenean ongi bereiztea komeni da:

- a) Terminologia-erakundeak, eta hauen bezero nagusi diren terminologia-erabiltzaileak (espezialistak, itzultzaileak...). Erabiltzaile horien beharrak kontuan hartu beharko dituzte erakundeek terminologia-lanean.
- b) Terminologia-ikerketak (terminologiaren marko teorikoa eta espezialitateko testuen deskribapen egokia ezarriko dituen) eta ikerketaren aplikazioa.

c) Terminoak eskuratzea (testu espezializatuen analisiaren bidez) eta prozesatzea (terminografia-lana). Hainbat erakunde eta talde dira ikerketan ari direnak unibertsitatean terminologiaren inguruko gaietan; besteak beste, hauek dira terminologia-lanerako garrantziko izan daitezkeen ikerketa-esparruak: terminologia bera, lexikologia, hizkuntzalaritza, hizkuntzalaritza aplikatua, hizkuntzalaritza konputazionala... Eta horretan ari dira EHUn hizkuntzalaritza eta filologia sailak, informatikako sailak, institutuak... Edonola ere, terminologiaren esparru zehatzekoak baino zabalagoak izan beharko dute ikerketek, bereziki lexikologiakoek, kontuan hartuta oraindik ere euskarazko testu espezializatuen deskribapena laburra izango dela eta neologia-lana handia izango dela euskal terminologian. Aplikazioak ikerketa-esparru eta helburuaren arabekoak izango dira: aplikazio informatikoak (zuzentzailea, lematizatzaila...), aplikazio terminografikoak (hiztegiak, datu-baseak...), testugintzaren itzulpen-lanaren inguruko aplikazioak (testu paralelizatuak, corpusak...), irakaskuntza, hizkuntza-aholkularitza eta bitartekotza, etab. Eta aplikazio horietan ere hainbat erakunde eta talde ari dira: EHUko Euskararako kabinetea, itzulpengintza-titulazioko eta euskara tekniko irakasgaietako irakasleak, sailak, institutuak...

Bestalde, gero eta erakunde gehiago dira, ikerketa-esparru espezializatu zehatz batean ari direnak izan ezik, aplikazioak integratzen eta hizkuntza-bitartekotza zerbitzu integrala eskaintzen saiatzen direnak (lexikografia, terminografia, testugintza, itzulpengintza, aholkularitza, zientzia-zabalkundea...). Ikerketaren emaitza diren aplikazioak eta tresnak ere beste tresna batzuetan integratzen dira eta, era berean, gero eta lotuago eraikitzen dira lexikografia-lanak eta hizkuntza-corpusak, lexiko unitateak bere hizkuntza inguru naturalean eskaintzeko.

EHUren Euskara Institutuak ere behar eta oinarri metodologiko horiei erantzun behar die. Horretarako, ikerkuntza eta aplikazioa, biak hartu behar ditu helburutzat eta jarduerak integratzen saiatu behar du: hizkuntza prestakuntza, hiztegegintza eta terminologia, testugintza eta itzulpen-lana, aholkularitza eta bestelako zereginak.

Bitartekotza edo hizkuntza-zerbitzu lanean aholkularitza- eta irakaskuntza- (prestakuntza-) zereginei erantzun behar die. Testugintza-arloan hainbat zeregin ditu Euskara Institutuak:

unibertsitate-testuak nahiz zabalkundekoak sortzea edo itzultzea; testuak zuzentzea eta begiratzea; irizpideak finkatzea (estilo-erabakiak proposatzea); ereduzko testuak eskaintzea (argitaratu diren testurik egokienak kontsulta modu erraz eta eraginkor baten bidez irakasle eta erabiltzaileen eskura jartzea). Ekoizpena lexikografiaren esparruan: lexikografia espezializatuko lanak (terminografia) eta lan didaktikoak, finkatu den lexikoa zabaltzeko eta inguru guztietan txertatzeko estrategiak erakusteko.

Estandarizazioari begira, Euskara Institutuak estandarizazio-batzordeetan parte hartuko du (bereziki Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sortu berri duen Terminologia Batzordean) eta EHUren barne-estandarizazioari helduko dio (barne-izendegia eta abar).

Eta honako hauek dira lan horretan jarduteko irizpide nagusiak:

- a) Euskara Institutua ez da, berez, terminologia-erakundea, eta ikerketa eta hizkuntza-zerbitzuen esparruko lanean integratu behar du terminologia-arloko ekoizpena.
- b) Institutuaren bezero lehenetsiak EHUko irakasle-ikasleak dira, nahiz eta kanpora begira ere lan egin dezakeen.
- c) Diziplina arteko lana bultzatu nahi du Euskara Institutuak, hainbat arlotako espezialisten eta hizkuntzako adituen elkarlana bideratuz.
- d) Talde-lana egin nahi du Institutuak helburu jakin batzuen bila.
- e) Eredu-lana egin nahi du; hau da, eredu izango diren testuak bilatu, hautatu eta eskaini nahi ditu, espezializazioko nahiz zabalkundeko lanetarako.
- f) Bitartekotza lana egin nahi du Institutuak, irizpideak finkatu eta aholkularitza-lana eginez.
- g) Didaktika lana egingo du Institutuak, irakasle eta espezialisten hizkuntza-prestakuntzatik hasita.

Hitz gutxitan esateko, terminologia lan-esparru zabalago batean kokatzea da egokiena, jakintza espezializatuaren gestioan. Gestio horrek jakintza espezializatuaren kudeaketa-alderdi guztiak hartuko lituzke bere gain: ekoizpena, zabalkundea eta normalizazioa.

3. ERABILTZAILLEENTZAKO TERMINOLOGIA-HIZTEGIA

ALDAERA

Terminologiaren Teoria Orokorrean ez bezala, gaur egun (berezi Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren eskutik) aldagarritasun terminologikoa badela onartzen da eta aztergaitzat hartzen da. Izan ere, aldaketa horren deskribapenak terminologiaren eta terminoen izaera ulertzen eta deskribapen egokia osatzen lagundu diezaguke. Oro har, testu-motari lotuak agertzen dira aldaerak, esate baterako ohiko forma lexikoaren eta sinbolo edo unitate estandarren arteko alternantzia: ‘ura / H₂O’

Aldaera kontzeptuala ere gerta badaiteke ere, aldaera ortotipografikoa da maiz euskaraz aztertu beharrekoa, hau da, termino jakin baten agerpen grafiko desberdinak (estandarizazioari lotuak maiz): ‘kanpin / camping’, ‘curriculum / kurrikulu’, ‘burnout / burn out / burn-out’). Bestalde aldaera sintaktikoak ere arretaz aztertzea komeni da aldaera formal ez ezik, esangura desberdineko unitateak ere osa daitezkeelako: ‘arazo ekonomikoak / ekonomi(a) (-) arazoak’, ‘espainiar literatura / Espainiako literatura’.

BILAKETA

Terminologia-bilaketa datu-base bat arakatu eta eskuratu nahi den informazioa aurkitzen saiatzea da, estrategia jakin bat erabiliz. Datu-basea antolatzean, bezeroa zein den eta bilaketak nola egingo dituen ongi aztertzea komeni da: horretarako, datu-basearen eremuak (hizkuntza, arloa, terminoa, iturria...) eta eremuen arteko erlazioak kontuan hartuko dira. Baina gaur egun, terminologia-bankuetan adina bila daiteke testuetan, eskura baititugu testu-corpus gero eta egokiago eta zabalagoak. Hortaz, bilaketa biak dira komenigarri terminologia-lanean, dokumentazio egokia eskuratzeko.

Bilaketa-motorra: datu-base batean edo, oro har, Interneten bilaketak egitea errazten duen programa edo tresna informatikoa.

CORPUSAK

Gero eta corpus zabalago eta egokiagoak ditugu eskura terminoak eta, oro har, hitzak edo hitz-multzoak bere testuinguruan dokumentatzeko. Euskaltzaindiaren egoitzan kontsulta

daitekeen Orotariko Euskal Hiztegiaren oinarritzko testu-corpusaz gain, badira hainbat Interneten bertan azter daitezkeenak. Horien artean, aipamen berezia merezi du XX. mendeko euskararen lagin estatistiko zabala biltzen duen EEBS corpusak (<http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html>). Baina EIZIE elkarteak eskaini duen administrazioko itzulpen-memorien multzoa (<http://www.eizie.org>), Pentsamenduaren Klasikoak (<http://www.klasikoak.com>) eta beste hainbat ere egokiak gertatzen dira testuen analisirako edo prozesamendu automatikorako; baita Interneten bidez eskuragarri dugun hainbat aldizkako argitalpen ere.

DATU-BASEAK ETA DATU-BANKUAK

Datu-basea: irizpide jakin baten arabera antolatutako datu erlazionalen multzoa, erabiltzaileak programa informatiko baten bidez kontsulta dezakeena.

Datu-bankua: irizpide jakin baten arabera antolatutako datu-base erlazionalen multzoa, erabiltzaileak kontsulta egiteko moduan prestatua.

Halakoak dira Euskalterm (http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm), Cercaterm (<http://www.termcat.es/cercaterm>), Grand Dictionnaire Terminologique (http://www.granddictionnaire.com/_fs_global_01.htm), eta abar.

Bereziki aipatzea komeni da EuroDicAutom. Hona hemen datu-banku erraldoi horren historia laburra: 1962an Europako Batzordearen Bulegoak *Euratom* glosarioa argitaratu zuen (4.000 kontzeptu, fisika nuklearrekoak, 5 hizkuntzatan); 1964an EUROTERM sortu zen, 4 hizkuntzako hiztegi kontestuala (frantsesa, alemana, italiara eta neerlandera), fraseologia tekniko ugari zekarrena; 1973an EURODICAUTOM eraiki zen eta 1976an hasi ziren lehen kontsultak; 1980ko hamarkadaren amaieran terminologo batzuek EURODICAUTOM datu-basearen ardura hartu zuten, itzulpen lanak utzita; 1990ko hamarkadan, paperezko lanak utzi eta MULTITERM datu-bankua sortu zen eta Hizkuntza Aholkularitza zerbitzua eratu zen. EURODICAUTOMek 11 hizkuntza biltzen ditu; Europako Batzordearen Itzulpen Zerbitzuak 1.900 langile ditu (1.200 itzultzaile eta 700 dokumentalista) eta 10.000 orrialde sortzen ditu egunean (gehienak teknikoak); badira informatika, hizkuntza-koordinazio edo beste zereginetarako espezialistak ere. Lanean ari dira 44 terminologo (4 hizkuntza bakoitzeko), Bruselan eta Luxemburgon. EURODICAUTOMek 1.000.000 fitxa biltzen ditu (5.000.000 sarrera) eta 200.000 laburtzapen. Fitxen edukia zehazten duten eremuak: hizkuntzak (en, fr...), definizioa, arlo-kodea, erreferentzia, autorea, fidagarritasun-kodea...

DEFINIZIOA

Ikuspuntu lexikografikotik, termino baten esanahia adierazten duen edo adiera zehazten duen formula lexikografikoa da definizioa. Fitxa terminologikoan, hainbat hizkuntzatako terminoen baliokidetasuna erabakitzeko balio du definizioak, kontzeptuaren ezaugarri semantiko bereizgarriak biltzen dituelako.

Beste ikuspuntu batetik esan daiteke definizioa kontzeptuaren deskribapen linguistikoa dela, gehienetan ezaugarriak zehaztuz egiten dena. Hainbat eratarata osa daiteke definizioa:

- a) analisiaren bidez; *estomatitisa: ahoaren hanturazko gaitza*
- b) sinonimiaren bidez; *femurra: izterrezurra*
- c) parafrasiaren bidez; *igeriketa: uraren gainean dabilenaren ekintza*
- d) deskribapenaren bidezkoa (sintesiaren bidez); *autogenoa: gorputzak berak sortu edo eratorria (Med)*
- e) inplikazioaren bidez; *diagnostikoa: diagnostikoa egiten dugu egoera jakin baten ezaugarri bereziak diren sintomak identifikatzen ditugunean*
- f) erakusketaren bidez (irudiak, formulak edo grafikoak erabiliz)

DESDERDINTASUN ESPEZIFIKOA

Kontzeptu espezifikoa bat arlo bereko kontzeptuetatik bereizten duen ezaugarri semantikoa, esate baterako 'ikasi' eta 'estudiatu' bereizten dituena.

DIGITALIZATZEA

Karaktere edo irudiak kode digital bihurtzea, euskarri informatikoan bildu edo tresneria informatikoarekin tratatzeko. Gordetzeaz gain, informazio-kopuru handia berehala tratatzeko aukera eskaintzen du digitalizazioak, era askotako ikerlan edo aplikazioak bideratzeko.

EGUNERATZEA

Terminologia datu-basean egiten den berrikuste eta gainbegiratze-lana, datu-basea zuzentzeko eta azken datuak gehitzeko. Izan ere, hiztegi terminologikoak ezin du hizkuntzaren une bateko argazkia izan, aitzitik hiztegi aktibo eta erreaktiboa izan behar du, etengabe elikatu eta eguneratuko dena. Bestalde, bestela pentsa badaiteke ere, maiz komeni da fitxak ezabatzea, datu-basea eguneratua egon dadin; besteak beste, honako hauek izan daitezke horretarako

arrazoi: estandarizazio-erabakiak, kontzeptuaren aldaketa gertatzea edo kontzeptua zaharkitua egotea. Eguneratze-zereginen egin beharreko lanik nabarmenenak honako hauek dira:

- a) Bikoiztutako fitxak ezabatu.
- b) Fitxa okerrak zuzendu.
- c) Fitxa zaharrak ezabatu, termino horiek erabiltzen ez badira.
- d) Fitxak estandarizazio erabakietara egokitu.
- e) Fitxa berriak gehitu.

ELIKATZEA

Datu-basea elikatu: terminologia datu-basean datu berriak sarrarazi, fitxak zuzenduz edo fitxa berriak sortuz. Banaka egin daiteke edo multzoka, proiektu jakin baten barruan, besteak beste, lexikografia espezializatuko lan bat erabiliz edo testuetako terminoak, eskuz edo automatikoki, atera ondoren.

ERABILERA-MARKA

Terminologia-fitxa batean ezartzen den marka berezia, terminoaren erabilerari buruzko informazioa eta zehaztasunak eskaintzen dituena. Lan lexikografikoaren helburuen eta erabiltzaileen arabera egin ohi da marken aukera. Era askotakoak izan daitezke, marka dialektalak (Bizk., Naf.) eta soziolektalak (Heg., Ip.), erabilera-markak (g.g.er., Zah.) edo beste era bateko informazioa eskaintzen dutenak: erregistroa (Goi.), estandarizazioa (nart., ponderazio-markak), informazio gramatikala, zehaztasun lexikoak, sintaktikoak eta abar. Horien artean bereziki erabiltzen dira terminografian arlo edo jakintza-eremuaren markak (Hizkl., Med., Fis., Mus., etab.).

EREMUAK

Informazio-mota jakin bat (definizioa, iturria, arloa...) jasoko duen datu-basearen esparrua da eremua. Jakintza espezializatua sailkatzeko balio duten eremuetan bil daitezke terminoak. Espezialitate bakoitzak, horrela, bere eremu-eskema izango du, terminoak era koherentean antolatzeko balioko diguna.

EUSKARRIA

Lan terminografiko bakoitzaren ezaugarrien eta hartzaileen arabera erabaki beharko da nola argitaratu, zein euskarritan, alegia. Honako hauek dira ohikoenak:

- a) papera (aldizkako argitalpenak)
- b) papera (liburua)
- c) papera (afixak...)
- d) CD-ROMa
- e) Internet
- f) beste batzuk (ikus-entzunezkoak...)

EZTABAIDA-TALDEA

Internet bidez harremanetan jar daitezke erabiltzaile, profesional edo espezialistak, elkarri laguntza eskatzeko, informazioa trukatzeko edo eztabaidan jarduteko. Moderatuak edo libreak izan daitezke eta biziki erraztu dute azken urteotan espezialisten arteko nahiz espezialista eta hizkuntza bitartekarien arteko harremana. Halakoa da EIZIEk (Euskal Itzultzaile eta Interpreteen Elkarteak) eratua duen Itzulist eztabaida-talde irekia (<http://www.eizie.org>).

FITXA TERMINOLOGIKOA

Termino bati buruzko informazioa biltzen duen oinarrizko dokumentua. Oro har, honako datu hauek biltzen ditu: terminoa eta terminoari dagokion eremua, beste hizkuntzetako ordainak, erabilera-markak, testuingurua edo adibideak, beste datu batzuk (definizioa, iturria, normalizazio-erabakiak...), fitxategiaren diseinuaren arabera. Hiztegiaren bezala, zehaztasun gramatikalak ere eskain daitezke:

- a) alderdi formala: aldaerak (aldagarritasun terminologikoaren berri), sinonimoak eta haien arteko erabilera-oharrak (testuinguru-arazoak, pragmatikoak, arloen araberakoak, normalizazioaren ondorengoak)
- b) alderdi morfosintaktikoak: kategoria- eta azpikategorizazio-zehaztasunak, aditzen erregimena, eta abar
- c) alderdi semantikoa: adierak edo hizkuntzen arteko baliokidetzak, eremu semantikoen arabera

FRASEOLOGIA

Testu bateko unitate terminologikoen inguruko unitate konplexuek osatzen dute fraseologia. Oro har, izen, izenondo edo aditzez osatuak daude unitate hauek eta beren izaera sintaktikoa

eta lexiko-semantikoa dute. Espezializatuak dira eta maiz agertzen dira itxura berean. Beraz, honako hauek dira unitate fraseologikoen ezaugarri nagusiak:

- a) egonkortasuna
- b) osagaiak aldi berean agertzea
- c) maiztasun estatistikoa
- d) espezializazioa

GLOSARIOA

Jakintza-arlo bateko edo erabilera-eremu bateko hitzen zerrenda; gehienetan definizioak edo beste azalpen batzuk ere eransten dira, edo lan jakin batean erabili diren hitz ezohiko edo ilunen zerrenda, beren azalpenarekin.

HIZTEGIA

Erreferentziarako hitz edo unitate lexikoen bilduma, gehienetan hurrenkera alfabetikoaren arabera ordenatua. Hainbat informazio eskain dezake hiztegiak: definizioa, deskribapena edo informazio entziklopedikoa, erabilera, informazio linguistikoa, eta abar.

Lexikoak arlo bateko hitzen zerrendak dira, hizkuntza bat edo gehiagoko hitzak jaso dituztenak.

ITURRIA

Termino baten erabilera dokumentatzeko, definizioa osatzeko edo testuingurua zehazteko informazioa eskaini duen pertsona, erakundea, liburua edo ikerlana. Edozein proiektu lexikografiko edo terminografikotan arreta handiz aztertu eta erabaki behar zein iturri erabiliko den, iturri fidagarriak era koherentean erabiltzeko. Bestalde, iturri horiek kode baten bidez aipatzea komeni da terminografia lanetan eta datu-base terminologikoetan.

KODEA

Fitxa terminologiko bateko hainbat eremutan erabiltzen den laburdura edo sinbolo alfanumerikoa. Fitxak indexatzea, lana automatizazioa eta bilaketak egitea errazten dute, informazioa eskaintzearekin batera.

KONKORDANTZIA PROGRAMA

Arlo bateko ikerketa egitean, bildu diren testuetako terminoen agerpena, maiztasuna eta ingurua automatikoki aztertzen duen programa informatikoa. Gaur egun badira aplikazio lexikografikoak ere, tresna horiek hiztegiak edo testuinguru-corpusak automatikoki osa baitituzakete. Konkordantzia programa ezagunak dira Concordance edo TACT (<http://www.chass.utoronto.ca/cch/TACT/tact0.html>).

KONTSULTA TERMINOLOGIKOA

Terminologia-datuetan edo beste iturri batean egiten den galdera, informazio terminologikoa eskuratzeko. Era askotako informazioa bila edo eska daiteke: erabilera dokumentatzeko, normalizazio-arauak ezagutzeko, hizkuntzen arteko baliokidetzak agerian jartzeko... Honako hauek dira kontsultarik ohikoenak:

- a) Datu-base edo datu-bankuen kontsulta
- b) Iturri jakin baten kontsulta (erabilera edo normalizazio-erabakiak aztertzeko).
- c) Adituen kontsulta: kontsulta egin dakioke terminologo bati, jakintza-arlo bateko espezialistari, hizkuntza-bitartekariari...

LABURTZEA

Hizkuntzaz ari garela, laburtzea hitz edo hitz-multzo bat era laburragoan ematea da (*truncamiento*). Edozein eratako unitatea labur daiteke: esaldi osoa, sintagma bat edo kategoria jakin bateko unitateak. Neologia-prozedura orokorra da laburtzea (Renfe, edota...) kategorizazio edo azpikategorizazio-aldaketen ondorengo lexikalizazioa jasan dezakeena ('soldadu gorriak > gorriak', 'kalitateko oneko jeneroa > kalitate(z)ko jeneroa', 'metropolitano > metro'...).

Laburtzapen (abbreviation, réduction, abreviación) hitzarekin siglak, ikurrak eta laburdurak adierazten ditugu. Horien artean, laburdurek ez dute balio terminologikorik (ez dute hitz berririk sortzen eta ez dira, oro har, aldagarritasun terminologikoaren oinarri), baina bai besteak.

Sigla eta akronimoak, lexikalizatu egin daitezke (A.I.D.S. > AIDS > aids) eta hitz berrien oinarri izan daitezke ('sida > sidoso, sidítico...') edo hitz berri bilaka daitezke, jatorrizkoaren kontzientzia galtzeraino (laser, radar...).

Ikur, sinbolo eta unitateek, berez, izaera linguistikorik izan ez arren, maiz ager daitezke datu-baseetan, ohikoak direlako espezialitateko testuetan (batez ere, zientifiko-teknikoetan). Oro har, nazioarteko erakundeen paradigma estandarrak erabiltzen dira: neurri-unitateak (cm, km, dam...), elementu kimikoak (Ag, Fe...) eta abar.

Laburdura maiz erabiltzen da testu espezializatuetan eta, batez ere, zientifiko-teknikoetan, baina laburdurak ez du balio terminologikorik (ez ditu hitz berriak sortzen). Ahal den

neurrian, forma osoa erabiltzea komeni da; onargarria da laburdurak erabiltzea infografian, taula eta irudietan, maiz errepikatzen diren testu estereotipatuetan (bibliografian) edo laburdura oso ezaguna denean. Laburdura erabili aurretik, hitz laburtu hori deskodifikatzen erraza izango den pentsatu beharra dago (hau da, irakurle jakin batek, inguru jakin batean erraz jakingo duen zein den esanahia).

LANTOKIA

Terminologo edo profesionalaren lanerako prestatutako tresneria multzoa, bereziki informatikoa, ergonomia irizpideen arabera antolatua.

LEXIKALIZAZIOA

Beti era berean erabiltzen den hitz-multzo bat (termino edo unitate konplexua, kolokazioa, esapide edo lokuzioa...) erabileraren poderioz, unitate lexiko adiera bakarrekoa bilakatzea.

Hainbat irizpide erabil daiteke lexikalizazio-maila neurtzeko:

a) Irizpide sintaktikoak:

Banaezintasuna (osagaiak ezin dira banatu)

Konmutazioa (osagaiak ezin dira ordezkatu)

b) Irizpide semantikoak: unitate lexiko horrek kontzeptu bakar bat ordezkatzeko duen

Adibideak: 'heste lodia', 'heste gorria', 'hesteitsua / heste itsua (?)'

LEXIKOGRAFIA

Lexikografia hitzarekin hiztegi gintza-lana edo hiztegi gintzaren ikerketa adierazten dugu.

Lexikografia espezializatua edo terminografia: espezialitate edo jakintza-arlo baten hizkera espezializatua deskribatzen edo aztertzen duen lexikografia-lana. Hainbat arazo berezi ditu terminologia-lanak: terminoak eta hiztegi orokorreko unitateak bereiztea, terminoak eremu jakin batean ezartzea, lan jakin batean zein termino sartu behar den erabakitzea, termino-izaera duten unitate konplexuak bereiztea...

LIBURUTEGI ELEKTRONIKOA

Digitalizatu eta formatu elektronikoan gordetzen den liburuen multzoa da liburutegi elektronikoa. Erabiltzaileek euskarraren bat erabiliz (CDa esate baterako) edo Interneten bidez kontsulta dezakete liburutegi elektronikoa. Liburutegia antolatzeko alde aurretik kontuan hartu beharrekoak dira honako irizpideak:

- a) liburutegiaren mugak (proiektuaren helburua)
- b) lanerako azpiegitura eta baliabideak
- c) egile-eskubideen gestioa
- d) eguneratze-lanak (aldizkariak badira)
- e) zehaztasun teknikoak (testu-basearen formatua)

Datu-baseen atalean aipatu ditugunez gain, badira euskaraz liburutegiak, esate baterako ‘Klasikoen Gordailua’ (<http://www.vc.ehu.es/gordailua/>), edo hemerotekak, adibidez ‘Armiarma’ (<http://www.armiarma.com/>).

METODOLOGIA

Honako hau da terminologia-lanak antolatzean gogoan izan beharreko urratsen hurrenkera (Diaz de Lezana 1996):

- a) Aztertu edo landu nahi den eremuari buruzko informazio orokorra bilatu, eremu horretaz dauden lanak (ikerlanak, lexikografia, terminologia-lanak...)
- b) Lanaren helburuak eta antolamendua erabaki: aztertuko diren hizkuntzak, eratuko diren lantaldeak, erabiliko diren baliabideak, hartuko den denbora...
- c) Lana prestatu: eremua zehatz aukeratu eta aztertu; kontzeptu-azterketa; errealitate profesionalaren azterketa eta errealitate linguistiko, soziolinguistiko eta psikolinguistikoaren azterketa; aholkularien aukeraketa; ikerketa bibliografikoa (lan-plan zehatza).
- d) Terminologia-lana: testuetatik lexikoa erauzte (hustuketa) eta corpusa osatzea.
- e) Terminologia-lana: fitxa terminologikoak diseinatu eta osatu; nomenklaturak bateratu; fitxak landu.
- f) Emaitzaren antolaketa eta aurkezpena.
- g) Berrikuspena eta normalizazioa: kontzeptuen normalizazioa; formen normalizazioa.

Bestalde, euskararekin egin behar den terminologia-lanerako irizpideak finkatzeko orduan (bereziki neologia eta estandarizaziorako), badirudi hizkuntza estandar orokorrerako onartu diren irizpideen antzekoak ezarri beharko liratekeela (Azkarate 1998):

Gutxieneko baldintza, orotariko lexikorako onartu den bezala, mailegua alboko bi hizkuntzetan erabiltzea izango da. Askotan esaten da gainera terminoak nazioartekoak izan ohi direla. Hortaz, ez dirudi zentzu handiegirik duenik inguruko hizkuntza gehien jokatik aldendu eta geure ordainak asmatzen hasteak. Hala ere, nazioartekotasunak mailak izaten ditu: batzuetan termino jakin bat Europako hizkuntza (ia) guztietan berdin erabiltzen da; beste batzuetan, askoz eremu urriagoa izaten du. Eta horixe da, nire ustez, eztabaidatu beharko genukeena: noiz kontsideratuko dugu nazioarteko termino jakin bat? Gaztelera, frantsesa eta ingelesa bat etortzea nahikoa izango al da? Ala alemana ere hartuko dugu kontuan (edo are daniera, suediera, zein hizkuntza eslaboak)?

NEOLOGISMOA

Hitz berria, mailegutza bidez edo bide patrimonialetik sortua (elkarketa, eratorpena, parasintesia edo laburketaren bidez, alegia).

NORMALIZAZIOA

Normalizazio-erakundeen lana: terminoak aukeratu, dokumentazioa aztertu, ontzat eman eta erabiltzaileen artean zabaltzeko, termino hori eremu eta erregistro jakin batean onartuz, hobetsiz edo gaitzetsiz.

Normalizazio-batzordea: hainbat erakundetako ordezkariak osatzen duten batzordea da; batzorde honen helburua da terminologia-ikerketen emaitzak aztertu eta eremu jakin bateko terminoen erabilera arautzea.

Normalizazio-lanean hainbat arlo aztertu behar dira: semantikoa, morfosintaktikoa, formala... Maiz biltzen dira arlo bateko eta besteko auziak, arazo lexiko-semantiko konplexuak osatuz.

PARALELIZATZAILEA

Jatorrizko eta itzulitako testuak parez pare jartzen dituen tresna edo aplikazio informatikoa da paralelizatzailea. Horri esker, jatorrizko hizkuntzako unitateak eta xede-hizkuntzako ordainak

erka daitezke. Hitzak ez ezik, unitate zabalagoak ere nabarmendu daitezke, baita balio terminologikoa izan dezaketen unitate sintaktiko luzeak ere.

TERMINOA

Jakintza-arlo bateko kontzeptu edo adigai bat izendatzen duen hitza (unitate sinplea), sintagma edo hitz multzoa (unitate konplexua), sinboloa edo formula.

Terminoaren estatus ofiziala: erabaki ofizial batek ebatzi duen termino baten egoera.

Honako hauek dira termino egokiaren ezaugarriak (ISO/DIN 704):

- a) zuzena (ongi eratua; hizkuntz arauaren barrukoa)
- b) zehatza
- c) laburra
- d) eratorpenerako oinarri egokia

Terminoak eratzeko ohiko bideak honako hauek dira: terminologizazioa (formaren aldaketarik gabe); hitz-elkarketa; eratorpena; konbertsioa (hitzaren kategoria gramatikalaren aldaketa), mailegutza, laburtzapena.

TERMINOLOGIA

Espezialitateko hizkeretako kontzeptuak eta terminoak aztertzen dituen *zientzia* terminologia da.

Terminologiaren teoria klasikoa (TTK) 1930eko hamarkadan sortu zen Wüsterren eskutik. Wüsterren asmoa ez zen teoria zientifiko bat eratzea, zientzia eta teknikan zeuden nazio arteko komunikazio-arazo praktikoei erantzutea baizik. Anbiguotasunik gabeko hizkera unibertsala osatu nahi zuen arlo zientifiko eta teknikorako. Teoria hura preskriptibo eta normalizatzailea zen nagusiki.

Terminologiaren teoria orokorra: Wüsterrek bere azken lanetan osatu zuen teoria. Terminologia modernoaren oinarria da. Hizkuntzalaritzatik eta lexikologiatik bereizten dituenak honako hauek dira: objektua (arlo zientifiko-teknikoak dituen adiera bakarreko unitate normalizatuak) eta metodologia. Informatika, hizkuntzalaritza, kognizio, komunikazio eta informazio-zientzien arteko esparru berezi eta beregaina da terminologia teoria honen arabera. TTOak ez du onartzen terminoak hainbat esparrutakoak direnik, aldagarritasun

terminologikoa dagoenik, terminoek izaera pragmatikoa dutenik, ez, oro har, jakintza-esparru batean (hizkera zientifiko edo teknikoan) erregistro bat baino gehiago ager daitezkeenik.

Terminologiaren Teoria Komunikatiboa. Cabrék proposatutako eredu honen arabera terminologia diziplina arteko jakintza-eremua da eta alderdi kognitibo, linguistiko, komunikatibo eta semiotikoak biltzen ditu. Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren arabera, jakintza espezializatua igortzeko hainbat eratako unitateak erabiltzen dira baina hizkuntza naturalaren barnean gertatzen diren unitate linguistikoak baino ez dira unitate terminologikoak: unitate horiek dira Terminologiaren Teoria Komunikatiboak aztertu nahi dituenak. Parekotasuna dago hizkuntza orokorreko unitate linguistikoaren eta hizkuntza espezializatuetakoko unitate terminologikoen artean: antzekoak dira baina ez dira berdinak; unitate terminologikoen balioa pragmatikoa da eta dagokien adigaiak espezialisten arteko konbentzioa da. Unitate horiek deskribatu eta aztertu nahi ditu Terminologiaren Teoria Komunikatiboak, baita unitate horiek testu espezializatuetan nola txertatzen diren ere (aldagarritasuna, osatzen duten egitura kontzeptuala, egitura kontzeptualaren eta diskurtsiboaren arteko erlazioa...).

Terminologiaren analisia: testu espezializatuaren azterketa, erabili diren kontzeptuak eta kontzeptu horiek izendatzeko erabili diren termino edo unitate terminologikoak agerian jartzeko. Gaur egun badira horretarako tresna automatikoak, besteak beste, unitateen ugartasuna eta dentsitatea kontuan harturik, termino izan daitezkeen unitate soil edo konplexuak agerian jarriko dizkigutenak.

Terminologiaren aurrean, oro har, eta bereziki Terminologiaren Teoria Orokorraren aurrean hainbat jarrera kritiko agertu da azken urteetan: besteak beste, hauek dira terminologiari egin zaizkion kritikak:

- a) Teoria terminologikoa erredukzionista da eta logika arrazionalistaren gainean eraikia.
- b) Terminologia ez da teoria espezifikoa beregaina (semantika, lexikologia, lexikografia...).
- c) Terminologia ez da zientzia, aplikazioa baizik.
- d) Ez dago terminologia eta hizkuntzalaritza bereizterik.

TERMINOZALEKERIA

Terminologia-eskakizun zorrotz (soberazko) batez jokatu beharra da terminozalekeria (Zabaleta 1996).

...azterketa batean, aztertzaileetako batek "divisionalización" terminoaren euskal ordain gisa ez zuen onartu nahi "sailatan banatze" esapidea. Terminozalekeria nabarmena (...); termino-zalekeria fundamentalismo terminologiko bilakatua...

TESTUINGURUA

Unitate lexiko edo terminologiko baten hizkuntza-ingurua da testuingurua, haren esanahia zehazten edo mugatzen duena. Fitxa terminologikoan testuingurua jaso daiteke, terminoaren ezaugarri semantiko edo sintaktikoen berri emateko.

BIBLIOGRAFIA

- Alberola, P. et al. 1996. *Comunicar la ciència. Teoría i pràctica dels llenguatjes d'especialitat*. Valentzia: Bullent.
- Alvar, M. 1993. *Lexicografía descriptiva*. Bartzelona: VOX.
- Auger, P.; Rousseau, L. J. 1978. *Méthodologie de la recherche terminologique*. Office de la Langue française. Québec: Éditeur officiel du Québec.
- Azkarate, M. 1997. "Euskal terminologiaren egoeraz". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. IVAP-UZEI, 249-272.
- Azurmendi, J. 1982. "UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan". *Jakin*, 23, 77-126.
- Battaner, P. 1995. "Terminología y diccionarios". In *Jornada Panllatina de Terminologia*. Bartzelona: IULA-UPF.
- Blampain, D. 1997. "La dérivtion en mémoire". In *V. Journées scientifiques 'La memoire des mots'*. TUNIS.
- Bofias, J.; Puiggené, A. 1997. "El diseño y la gestión de datos terminológicas: un desafío permanente". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: IVAP-UZEI. 457-463.
- Bover, J. 1997. "Actitud del especialista ante la normalización de préstamos". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: IVAP-UZEI. 341-348.
- Bureau International des Poids et Mesures. 1985. *Le Système International d'unités (SI)*. 5. argit. B.I.P.M., Sèvres. [<http://www.bipm.fr/> (2002-09-08)]
- Cabré, M. T. 1992. *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*. Bartzelona: Editorial Empúries.

- . (zuz.) 1996. *Terminologia. Selecció de textos d'E. Wüster*. Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea.
- . 1999. *La terminología: representación y comunicación. Elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos*. Bartzelona: Pompeu Fabra Unibertsitatea, Institut Universitari de Lingüística Aplicada.
- Calsamiglia, H. 1997. "Divulgar: itinerarios discursivos del saber. Una necesidad, un problema, un hecho", In *Quark* 7, 9-18.
- Calvet, J. L. 1980. *Les sigles*. PUF. Paris.
- Cassany, D. 2001. "Fer entendre la ciència als qui ho necessitin". In *Comunicar ciència* (C. Junyent ed.) Treballs de la SCB. 51. liburukia (2001), 189-193.
- Catach, N. 1990. *Pour une theorie de la langue ecrite: actes de la table ronde internationale*. C.N.R.S.-H.E.S.O. Paris.
- Cirera Suárez L.; Vázquez Fernández, E. (eds.) 1998. *La implantación en España de la Clasificación Internacional de Enfermedades 10ª Revisión*. Santiago: Sociedad Española de Epidemiología.
- Collet, T. 1997. "La réduction des unités terminologiques complexes de type syntagmatique". *META*, XLII, 1.
- Colomer, R. 1997. "Dimensión social de la normalización terminológica". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: IVAP-UZEI. 295-306.
- Diaz de Lezana, A. 1996. "Terminologia lanaren metodologia". *SENEZ*.
- Direcció de Política Lingüística. 1997. *Abreviacions*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya.
- EIZIE 1999-2000 (<http://www.eizie.org>). 'Itzulist' eztabaida zerrenda (Yahoo / eGroups). <http://www.egroups.com/itzulist.htm>.
- Elosegi, A. 2002. *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*. Dokotoretza tesia (ms)
- Ensunza, M. 1989. "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak". *Euskera*, 2, 577-596.
- Estopà, R. 1996. *Las unitats terminològiques polilexemàtiques en els lèxics d'especialitat: dret i medicina*. Tesi de llicenciatura, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatea.
- . 2001. "Elementos lingüísticos de las unidades terminológicas para su extracción automática". In *La terminología científico-técnica*. Cabré, M. T. arg. Bartzelona: Iulaterm Pompeu Fabra Unibertsitatea.
- Estopà, R.; Valero, A. 1999. Adquisición de conocimiento especializado y unidades de significación especializada en medicina. Madril.
- Euskaldunon Egunkaria. 1995. *Estilo liburua*. Donostia: Euskaldunon Egunkaria.

- Euskaltzaindia. 2000. *Hiztegi Batua*. Euskera, 45, 2000-2. Bilbo.
- Gouadec, D. 1997. "Dictionnaires terminologiques". *META*, XLII, 1.
- Gutiérrez, B. 2000. "El lenguaje de la medicina y sus funciones". *Revista Iberoamericana de Discurso y Sociedad*. Bartzelona: Gedisa, 2000. 2. liburukia.
- . 1998. *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Bartzelona: Península.
- Hoffmann, L. 1998 [1988]. "Conceptes bàsics de la lingüística dels llenguatges d'especialitat". In Brumme, J. (ed.) *Llenguatges d'especialitat. Selecció de textos*. Bartzelona.
- Honvault, R. 1995. "Statut linguistique et gestion de la variation graphique". In *La langue française*. Dec 1995. 108.
- Irazazábal, A.; De Andrés, M.I.; Ferrándiz, S. 1997. "La terminología científica normalizada, un producto estratégico desde el punto de vista internacional". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: IVAP-UZEI. 595-601.
- IVAP. "Laburtzapenak". In *Adminiklopedia*,
[<http://www.ivap.com/eusk/argiro/argiro6.htm#laburtzapenak> (2002-09-08)].
- . "Laburtzapenak". In *Argiro* [<http://www.ivap.com/eusk/argiro/argiro5.htm> (2002-09-08)].
- Kocourek, R. 1982. *La langue française de la technique et de la science*. Wiesbaden: Oscar Brandstetter Verlag GmbH & Co.
- Kostina, I. et al. 2002. "La variación terminológica en las aplicaciones terminográficas". In *VIII Simposio Iberoamericano de Terminología*. RITERM.
- Lerat, P. *Les langues spécialisées*. Paris: PUF. 1995.
- Martínez de Sousa, J. 1984. *Diccionario internacional de siglas y acrónimos*. Madril: Pirámide.
- . 1987. *Diccionario de ortografía técnica*. Madril.
- Masson, M. 1995. "A propos des variations orthographiques des mots d'origine exotique". In *La langue française*. Dec 1995. 108.
- Mitxelena, K. 1977. "El largo y difícil camino del euskara". In Euskaltzaindia. *El libro Blanco del Euskera*. 15-29.
- . 1981. "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia". *Muga*, 19, 5-19.
- Olaizola, M. "Terminoia eta lexikoa orokorra: biak bereiztearen ondorioak". *Administrazioa Euskaraz*, 18. HAEE-IVAP.
- Olmo del, K. 2000. "Kalitate arauak itzulpengintzan: jaio dira berriak". *Senez*, 22, EIZIE.

- Palacio, G. J. *Laburkinen itzulpena kazetaritzan*. [<http://www.ehu.es/laburzki/1.artikulu.html> (2002-09-08)].
- Pavel, S. 1992. *Bibliographie de la phraséologie 1905-1992*. Bureau de la traduction (Canada) & RINT (Réseau International de Néologie et Terminologie).
- Percebois, J. 2001. “Fonctions et Vie des Sigles et Acronymes en Contextes de Langues Anglaise et Française de spécialité”. *META*, XLVI-4, 2001.
- Pérez, Ch. 2002. “Explotación de los corpórea textuales informatizados para la creación de bases de datos terminológicas basadas en el conocimiento” (Doktorego tesia). *Estudios de Lingüística Española (ELiEs)*, 18. liburukia. [<http://elies.rediris.es/elies18/34.html> (25-09-2002)].
- Puigcerver, M. “Sobre el uso y desuso del SI”. *Revista Española de Física*, 5. liburukia, nº 1 (1991), 23-25.
- Rey, A. 1988. “Equilibre et déséquilibre lexical”. In *Euskara Biltzarra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Sagarna, A. 1988. “Lexikologia, lexikografia, terminografia: euskal lexikoaren berrikuntzari egin beharreko ekarpenak”. In *Euskara Biltzarra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Sager, J.C. 1990. *A Practical Course in Terminology Processing*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Sarasola, I. 1997. “Euskal Hiztegiaren eta Terminologiaren Inguruan”. In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. IVAP-UZEI. 69-86.
- Tercedor M.; Méndez, B. 2000. “Fraseología y variación terminológica: estudio descriptivo en corpora biomédicos”. In *Terminologie et traduction 2*.
- Termcat. 1990. *Metodología del treball terminològic*. Barcelona.
- Translation Bureau. Public Works and Government Services 2001. *Handbook of terminology*. Kanada.
- Ugarteburu, I. 1997. “Akronimoen lexikalizazioa: HIESetik hiesera”. In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. IVAP-UZEI. Donostia, 565-583.
- . 2000. “La traducción de términos de especialidad”. In *Primer Congreso Internacional de Traducción Especializada*. Pompeu Fabra Unibertsitatea. Barcelona.
- UZEI. 1982. *Maileguzko hitzak. Ebakera eta idazkera*. Donostia: UZEI.
- . 1988. *Laburtzapenen gidaliburua*. Donostia: Elkar.
- Vila, N. ; Casanovas. M. 1999. “Lengua especializada y lexicografía: calas en el léxico de la medicina”. In *Así son los diccionarios*. Lleidako Unibertsitatea.

- Wüster, E. 1998. *Introducción a la teoría general de la terminología y a la lexicografía terminológica*. M.T. Cabré arg. Barcelona: IULA.
- Zabaleta, J. 1996. "Terminologia gora-behera". *SENEZ*.